

Koronabirusaren ke-lainoa

**Nekane
Zinkunegi
Barandiaran**

Koronabirusaren hedapena dela-eta harrituta igaro dut astea. Neure artean, pentsatu dut gidoi pobreagoko film eta telesailak kontsumitu ditudala, eta gaitzaren inguruan zabaldu den izuak neurritz kanpoko dimentsioa hartu duela.

Asteazkenean, «lasaitasun» eta «konfiantza» mezuak helarazi zituzten Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko arduradunek. Dirudienez, EAEn atzemandako kasuen gehiengoa probak egin ondoren baztertu dituzte. Etorkizunean ager dai-

tezkeen kasuen aurrean, berriz, kontingentzia plan bat abiarazi eta Jaurlaritzako hainbat sailen arteko mahaia eratu dute. Osteguneko lehen bileran, Iñigo Urkullu lehendakaria izan zen buru.

Barka iezadazue, baina Eitzagako zaborteziaren auziaz egin den kudeaketarekin alderatu dut. Kasu hartan, luizia gertatu eta astebete baino gehiagora etorri ziren prebentzio neurriak: Ermuko, Eibarko eta Zaldibarko herritarrek ez zitza-tela etxeak egurastu; ariketa fisikoa saihets zezatela; Eitzagako baserritarrek

ez zezatela barazkirik saldu... Eta koronabirusak Txinatik Italiarako jauzia egin duen aldi berean, Verter Recyclingek kudeatutako zaborteziaren berriek albistegien erditik aurrerako postua hartu dute.

Izan ere, koronabirusaren harirako kontingentzia plana gripearen kanpaina-rekin urtero martxan jartzen denaren antzekoa omen da. Gaiari albistegiko lehen hogeit hamar minutuak eskainiz iragartzen al dute hura ere? Edo eragina du apirilaren 5eko Eusko Legebiltzarreko hauteskunde-en kanpainaurreak? •

Besteen beldurrak gure azalean

**Amagoia Mujika
Telleria**

Katarro galanta harrapatu du, marranta eta eztula. Eztul oso itsusia dauka, betidanik. Artean ez ditu hamar urte eta eztul egiten duenean ehun urtetik gertukoa dirudi. Horrelakoa da bere eztula. Lotsatu egiten da bere eztulaz eta besoarekin tapatzen du ahoa eztul egitean, medikuak agindu bezala. Egun osoa etxean egon da eta erosketak egitera joan gara, pixka bat mugitzearren. Supermerkatu jendetsuan sartu orduko konturatu gara, bai ni eta bai bera, ez dela ideia ona izan.

Eztul egiten duen bakoitzean –nahiz eta oso ondo gordetzen duen– ingu-

ruan baten bat begira geratzen zaio eta pausoa aldatzen du, urruntzeko. Beste batzuek ahopeka aipatzen dute mutikoaren eztul itsusiarena. Eta hari eta niri begiratzen digute. «Nola ekarri duzu haurra supermerkatu ez-tul itsusi horrekin?», esanez bezala. Eta maskara gabe, gainera.

Bai, oso gaizki sentitu gara. Besteen beldur guztiak iltzatu zaizkigu azalean eta ez zaigu batere gustatu toki hori: «errudunarena», «seinalatuarena», «susmagarriarena», «arriskutsuarena». Ariketa gogorra izan da, baina baliagarria. Gure azalean probatu dugu jendarte honek hainbeste jenderentzat

erabili ohi duen botika, mesfidantzaren pozoia.

Ez dugu koronabirusak gu erotzerik nahi. Tamaina hartu nahi diogu eta zentzuz jokatu, alarmismoan erori gabe. Baina ez da erraza. Auskalo egunean zenbatetan entzuten dugun hitz hori azkenaldian.

Etxera bueltatu gara, erosketak pultamenturik gabe eginda, eta bost urteko ilobak esan digu oso kezkatuta dagoela, bere lagun Oihaneren amona Donostian bizi delako. «Eta?», gure galdera harrituta. «Ba koronabirusa Donostiara iritsi da eta nire lagun Oihane oso kezkatuta dago». •